

Euskararen biziberritzea hedabideetan eta enpresetan: hurbilketa bat EITBren kasura

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Martin Txintxurreta Albizua

Tutorea: Ibon Manterola Garate

Euskal Ikasketetako Gradua (UPV/EHU)

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

2020-2021 ikasturtea

LABURPENA

Euskararen biziberritzea 1980ko hamarkadan abiatutako prozesu soziala da, euskarak hizkuntza gutxitu gisa galdu zituen esparruak berreskuratzeko. Prozesu horretan balio sinboliko handia izan zuen Euskal Irrati Telebistaren sorrerak, 1982an. Hain zuzen ere, sorrerako helburuetan euskara sustatzeko zeregina ezarri zitzaion. Lan honek EITBk euskararen biziberritzean egindako ekarpenei helduko die, hizkuntza-plangintzaren hiru arlotan (corpus-plangintza, estatus-plangintza eta jabeakuntza-plangintza) bultzatutako ekimen nagusiak bilduz. Halaber, enpresak euskalduntzeko plangintza ere izango du aztergai, eta plangintza horren nondik norakoak azaldu ondoren EITBren euskara planean jarriko da fokua. EITBk euskararen biziberritzean paper garrantzitsua jokatu duela ondorioztatuko da, baita euskara planak enpresaren euskalduntzeari bultzada eman diola ere.

ABSTRACT

Basque is a minority language that had lost much of its public sphere in favour of Spanish and French. By the 1980s, this situation prompted a social process known as the Basque Language Revitalization. The creation of EITB (Basque Radio-Television, the public broadcasting company of the Basque Country) in 1982 happened within this process, given that the founding charter of the newly formed broadcaster established the promotion of Basque as one of its aims. This work addresses the main contributions of EITB to language revitalization, by analysing three areas of language planning, namely: corpus planning, status planning and acquisition planning. Moreover, schemes to incorporate the Basque language into companies' workplaces and work practices (Basque Language Plans) are also analysed, paying special attention to EITB's Basque Language Plan. We conclude that EITB played a pivotal role in the Basque Language Revitalization, and that EITB's Basque Language Plan made progress regarding the presence of Basque in the company's workplace.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	1
1. HIZKUNTZA GUTXITUAK ETA HEDABIDEEN PAPER A EUREN BIZIBERRITZEAN.....	2
1.1. Hizkuntza gutxituak eta gutxiengo linguistikoak.....	2
1.2. Hizkuntza politika eta plangintza: hizkuntza gutxituen biziberritzea	3
1.3. Hizkuntza gutxituko hedabideak.....	4
<i>a) Nola sortzen dira hizkuntza gutxituko hedabideak?</i>	5
<i>b) Hedabideak eta hizkuntza plangintza.....</i>	6
2. EREMU SOZIOEKONOMIKOA ETA EUSKARA: Enpresetako hizkuntza plangintza.....	7
2.1. Enpresak euskalduntzeko ahaleginak EAEn	7
<i>a) Hasierako ahaleginak eta 1990eko salto kualitatiboa</i>	7
<i>b) 2000ko hamarkada: planen hedadura eta ziurtagiriak</i>	8
<i>c) Azken urteetako argazkia</i>	9
2.2. Enpresak euskalduntzeko metodologia	9
3. EITB ETA EUSKARAREN BIZIBERRITZEA	10
3.1. EITBren sorrera eta hasierako helburuak.....	10
3.2. EITBren hizkuntza hautua.....	11
<i>a) Estandarraren hautua eta euskalkien lekua.....</i>	11
<i>b) Euskararen presentzia programazioan: ETB1 / ETB2</i>	13
3.3. EITB eta corpus-plangintza.....	14
<i>a) Albistegietako euskara</i>	14
<i>b) Hizkera berriak</i>	15
3.4. EITB eta estatus-plangintza	16
<i>a) EITBren eragina hizkuntza-jarreretan.....</i>	16
<i>b) EITB eta euskal ikus-entzunezko industria</i>	17
3.5. EITB eta jabekuntza-plangintza.....	18

<i>a) Haurren programazioa</i>	18
<i>b) Saio didaktikoak</i>	18
4. EITB ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA PLANGINTZA	19
4.1. EITB euskara planerako bidean	19
4.2. Lehen euskara plana (2013-2016)	20
4.3. Bigarren euskara plana (2017-2020)	21
4.4. Hirugarren euskara plana (2020-2022)	23
5. ONDORIOAK	23
BIBLIOGRAFIA	26

SARRERA

Euskal Irrati Telebista (EITB) Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) komunikazio talde publikoa da, 1982an sortua Eusko Legebiltzarraren eskariz eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez. Bosna telebista kanal eta irrati katerekin, EAEko komunikazio talde nagusia da. Frankismoaren ondorenean, euskara bezalako hizkuntza gutxitu batentzat egundoko bultzada izan zen hedabide propioak sortzea, eta, hezkuntzaren zein administrazioaren euskalduntzearekin batera, EITB euskararen biziberritzerako adarretako bat bilakatu zen.

Lan honek bi helburu nagusi ditu. Batetik, EITBk euskararen biziberritzean egindako ekarpen nagusiak xehatzea, hasierako urteetan gainditu behar izan zituen erronkak azalduz eta bere ibilbidean zehar hizkuntza plangintzaren arlo ezberdinetan egindako lana nabarmenduz. Bestetik, enpresetako euskara planetan jarri nahi da arreta, EITB erakundearen barruan euskararen normalizazioa lortzeko garatutako plangintzari gainbegirada eginda.

Horretarako, lana lau ataletan egituratu da. Lehen atalean hizkuntza gutxituen biziberritzeari eta hizkuntza gutxituko hedabideei buruzko oinarri teoriko bat bildu da. Hedabideen papera laburbiltzen da, hizkuntza plangintzaren hiru alderdi bereiziz (corpusa, estatusa eta jabekuntza). Bigarren atalean, enpresak euskalduntzeko planen eta tresnen bilakabidea aztertzen da, bereziki EAERI begira, eta euskara planen funtzionamendua azaltzen da. Hirugarren atalak EITBren lanari erreparatzen dio: egitasmoa nola sortu zen, egindako hizkuntza hautuak, eta corpus-, estatus- zein jabekuntza-plangintzan ezarritako mugariak aztertuko dira. Batez ere telebistan jarri da arreta, horixe baita EITB taldearen ikur nagusia, bai alderdi ekonomikotik bai gizarte mailan. Laugarren atalak lanaren bigarren helburua du ardatz, hots, EITBko euskara plangintzaren bilakaera, enpresetako euskara planen ikuspuntutik. Azkenik, lanaren ondorioak atera dira.

Informazio-iturri gisa hainbat liburu, artikulua eta txosten erabili dira. Nabarmentzekoa da Asier Larrinagaren (EITBko Euskara Zerbitzuko burua) doktoretesia, gaur arte gaiari buruz dagoen azterketarik sakonena. Bestalde, 2020ko urria eta 2021eko urtarrila bitartean EITBko Euskara Zerbitzuan bekadun aritzeko aukera izan nuen. Esperientzia horrek gaia hurbilagozik ikusteko aukera eman zidan, Euskara

Zerbitzuaren lana bertatik bertara ezagutzuz, eta EITBren barne-dokumentazioaren berri izateko ere lagungarria izan zen.

1. HIZKUNTZA GUTXITUAK ETA HEDABIDEEN PAPER A EUREN BIZIBERRITZEAN

1.1. Hizkuntza gutxituak eta gutxiengo linguistikoak

Hizkuntzez eta gutxiengoez ari garenean, funtsezkoa da “gutxiengo linguistikoak” eta “hizkuntza gutxituak” bereiztea. Hego Jutlandian, Alemania eta Danimarkaren arteko mugaren iparraldean, daniera hiztunez gain aleman hiztunen gutxiengo bat bizi da. Talde honetako kideek hainbat eskubide linguistiko dituzte, besteak beste, alemanez irakasten den eskola batera joateko aukera. Hala ere, aleman hiztun komunitateko kide gehienek daniera dute ama hizkuntza. Aleman komunitatea gutxiengo linguistiko baten adibide da, baina ez dute hizkuntza gutxiturik (Haberland, 1991:181). Irlandako Errepublikan *Gaeltacht* eremutik kanpo irlandaraz mintzo direnek, aldiz, ez dute gutxiengo linguistikorik osatzen, hizkuntza gutxituan mintzatu arren.

Hizkuntza gutxituak sailkatzeko “gutxiengoa” zer den definitu behar dugu. Hizkuntza gutxituez ari garenean, ordea, ez da nahikoa gutxiengoa “gehiengoa osatzen ez duen taldea” (Euskaltzaindiaren Hiztegia, 2021) dela esatea. Adibide gisa India jarrita, 12 hizkuntza nagusietatik bakarra ere ez da herritarren erdia baino gehiagoren ama hizkuntza (Haberland, 1991:182), baina honek ez du esan nahi horietako guztiak hizkuntza gutxituak direnik. Skutnabb-Kangas eta Phillipsonen definizioak (Skutnabb-Kangas & Phillipson, 1989:470) ematen digu gako, “boterea” ere aipatzen baitute:

If you live in a country with speakers of many different languages, you have to share at least one language with the others in order for a democratic process to be possible. And if the language most widely spoken by your fellow citizens (either because it is the mother tongue of the majority, or because the power elite has decided that it will be the lingua franca) is not your mother tongue, you belong to a linguistic minority in your country.

Gizarte batean bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daudenean, diglosia kontzeptua erabiltzen da hizkuntza bakoitzak erabilera-esparru jakin batzuk hartzen dituela adierazteko (Fishman, 1991:73). Fishmanek proposatutako definizioaren arabera egoera hori iraunkorra izan daiteke esparruak bereziak diren bitartean, baina bestela elkar ordezkatzeko lehian ibiliko dira (Fishman, 1991:85). Bi hizkuntzaren edo hizkuntza-

komunitateren arteko lehia hori hizkuntza-gatazka gisa definitu ohi da. Egoera horretan, hizkuntza gutxituak funtzioak eta esparruak galdu dituztenak izango dira, hizkuntza indartsuago batekin ukipenean daudelako (Coyos, 2010:164).

1.2. Hizkuntza politika eta plangintza: hizkuntza gutxituen biziberritzea

Hizkuntza plangintza (*language planning*) terminoa Haugen hizkuntzalariak erabili zuen lehen aldiz 1959an. Hasieran hiztun komunitate heterogeneo bateko idazle eta hiztunentzako ortografia, gramatika eta hiztegia arautzea gisa definitu bazuen ere, gerora lan horiek plangintzaren emaitza zirela esan zuen, ez hizkuntza plangintza bere osotasunean (Cooper, 1990:30). Haugenen lanaren ondoren beste hainbat definizio proposatu dira, eta horiek aztertuta Cooperrek (1990:29) hizkuntza plangintza helburu anitz eta baliabide anitz barnebiltzen dituen arloa dela esan zuen. Hizkuntza politika (*language policy*) plangintza horren helburuei erreferentzia egiteko erabili ohi den kontzeptua da, baina bi arloak gero eta hurbilago daude elkarrengandik, eta, harreman hori azaltzeko, azken hamarkadan hizkuntza politika eta plangintza (HPP) terminoa (*language policy and planning, LPP*) nagusitu da (Sallabank, 2011:278 eta Larrinaga, 2019:24)

Hizkuntza plangintzaren definizioa zedarritzeko bidean, Cooperrek galdera hauei erantzun zien: *nork* planifikatzen du *zer*, *norentzako* eta *nola*? Hasteko, aurretiko definizio batzuk murriztaileegiak zirela adierazi zuen, hizkuntza plangintza ezin baita agintarien ekintzetara soilik mugatu (Cooper, 1990:31). Ondoren, hiru arlo bereizi zituen: estatus-plangintza, corpus-plangintza eta jabekuntza-plangintza (Cooper, 1990:31-34).

Corpus-plangintzan hizkuntzaren kodearekin lotutako ekintzak aipatzen ditu, hala nola, hitz berriak asmatzea edo mailegatzea, idazketa sistema arautzea edo aldatzea eta termino zaharrak moldatzea. Estatus-plangintzaren ardatza hizkuntza bakoitzari edo aldaera bakoitzari dagozkion erabilera-esparruak eta funtzioak dira. Gobernuak eta erakundeek horiek aldatzeko edo finkatzeko egiten dituzten ahaleginak dira plangintza honen muina, hizkuntza jakin baten erabilera handitzeko. Azkenik, jabekuntza-plangintzak hizkuntza baten erabiltzaile (hiztunak, idazleak, irakurleak zein entzuleak) kopurua handitu nahi du, hots, hizkuntzaren jabekuntza sustatu (Sallabank, 2011:281).

Hizkuntza gutxituen biziberritzea HPPren alderdietako bat da. Hizkuntza gutxituaren hiztunak eta erabilera-esparruak irabazteko prozesu soziala da, hizkuntza

menderatzaileak izandako funtzioak bereganatuz (Manterola & Berasategi, 2011:43-44). Prozesu horren teorizazioa da, hain zuzen ere, Fishmanek 1991ko *Reversing Language Shift* (RLS) lanean azaldutakoa.

Fishmanen ustez, hizkuntza gutxitudun komunitatea bere baitan bildu beharko litzateke, etxeko esparruan eta gertuko komunitatean hizkuntzaren erabilera indartzuz, botereguneetara iristea askotan komunitate txikiaren eskuetatik kanpo baitago (Manterola & Berasategi, 2011:45). Hizkuntza baten biziberritzeari ekiteko galeraren arrazoiak ulertu behar dira lehenik, berau zuzentzeko neurriak zehazteko: dislokazio fisikoa eta demografikoa, dislokazio soziala edota dislokazio kulturala (Manterola & Berasategi, 2011:45-47). Indarberritzeko estrategiak modu sistematikoan diseinatu ahal izateko, Fishmanek (1991) hizkuntza-komunitateen mehatxu egoeren sailkapen bat proposatu zuen: belaunaldien arteko etenaren eskala (GIDS, *Graded Intergenerational Disruption Scale*).

Eskala horretan zortzi maila zehazten dira, hizkuntzaren transmisioan egon daitekeen etenaren arabera. Zenbat eta maila goragoan egon, orduan eta zailtasun handiagoak izango ditu hizkuntza gutxituak belaunaldiz belaunaldi bizirauteko (Fishman, 1991:87-109). Seigarren mailan dago transmisioaren giltzarria: hizkuntza gutxitua ahozko jardun informalean erabiltzen da familian, komunitatea demografikoki bilduta dago eta erakundeetan nolabaiteko indarra du (Manterola & Berasategi, 2011:50). Lehen mailan, lekua du goi-mailako hezkuntzan, erakundeetan, lan-esparruan eta hedabideetan.

1.3. Hizkuntza gutxituko hedabideak

Hedabideek hizkuntzan duten eragina aztertu izan denean, zalantzan jarri izan da aldaketa sakonak gauzatzeko duten gaitasuna. Oro har, ez zaie oinarrizko ahalmen 'biderkatzaile' bat ukatzen, baina ez dago garbi noraino irits daitekeen: influentzia zuzena, ikus-entzuleen hizkerako ezaugarriak aldatzerainokoa, edota bigarren mailako eragina, hizkera aldatu ez arren ikus-entzuleak zenbait ezaugarri edo erabileratara ohitzeko gai dena (Sinner, 2017:385).

Sinnerrek (2017:387-389) influentzia zuzena zalantzarria dela argudiatzen du bere lanean, kausa-efektu erlazioa frogatzea oso zaila baita. Edonola ere, hedabideei paper garrantzitsua esleitu izan zaie estandarizazioan edo arauen implementazioa bezalako

ataletan, eta ukaezina da hizkuntza baten hedabideetako presentziak (edo haren gabeziak) hizkuntzaren prestigioan eta harenganako jarreran duen eragina.

Fishmanek hedabideen papera GIDS eskalako 2. mailan edo gorago kokatu zuen, aurreragoko faseetan identitatearen eraketarekin, komunitatearen antolakuntzarekin eta gazteen sozializazioarekin lotuta. Izan ere, hedabideak hizkuntza-ordezkapena itzularazteko familian, auzoan edo komunitatean egiten den lanaren indargarri soilik izan beharko liratekeela argudiatu zuen (Fishman, 1991:395). Fishmanek “hedabideen fetitxea” ere aipatzen du (Fishman, 2001:482), hizkuntza nagusiaren eskaintza ugariago eta merkeagoak hizkuntza gutxituko hedabideen eskaintza jokoan kanpo uzteko arriskuaz ohartaraziz.

Hizkuntza gutxituak biziberritzeko plangintza askotan, ordea, hedabideak erdigunean kokatu dira (Larrinaga, 2019:35). Cormacken (2004:2) ustez, hizkuntza gutxituko hedabideek ezin dute familiako transmisioa ordezkatu, baina, egungo gizarteetan, ezin da euren balioa alde batera utzi. Jarraian, hedabide horiek nola sortzen diren eta hizkuntzaren biziberritzean zer ekarpen egin dezaketean azalduko dut.

a) Nola sortzen dira hizkuntza gutxituko hedabideak?

Cormackek hainbat baldintza zehaztu zituen hizkuntza gutxituko hedabideen sorrerarako (1998:39-42). Hitzunen kopurua, hots, kontsumitzaile potentzialen kopurua, ez da faktore garrantzitsuena, txikia izanda ere, bestelako arrazoiengatik (besteak beste, politikoak) babes daitekeelako hedabide bat. Beharrezko baldintzen artean hedabidea sortzearen alde presionatuko duen kanpaina baten existentzia, lidergoa eta antolakuntza egokia daude. Horrekin batera, komunitatearen herrialdeko kultura politikoa eta testuingurua ere aipatzen ditu. Azkenik, hizkuntza gutxituaren estatus sinbolikoa (esaterako, nazio hizkuntza gisa identifikatua izatea) eta nazioarteko joerak (gisa horretako lehen hedabideen sorrera, Europako Hizkuntza Gutxituen Gutunean hedabideak aipatzea...) ere kontuan hartu behar dira.

Irlandako Raidió na Gaeltachta irratia gaelikoaren aldeko presio-talde baten ondorioz sortu zen 1970eko hamarkadan. Galeseko S4C telebista kanala 1982an sortu zen, horren aldeko hainbat protestaren ondoren: gainerako telebisten emisioak sabotatzeraino ere iritsi ziren, eta espetxeratutako aktibista batzuek gose grebarekin mehatxu egin zuten (Ó Laoire, 2000:151). Komunikabide hauen sorrera aipatzen duten

lanetan, kanpaina horien behetik gorako (*bottom-up*) izaera azpimarratzen da: estatuen edo gobernuen erabakien zain egon gabe (edo, akaso, zain egotearen ondorioz), hedabideen beharra aldarrikatzeko eta agintari politikoak presionatzeko gizarte-mugimenduak eratu ziren (Hourigan, 2003:112).

b) Hedabideak eta hizkuntza plangintza

Hizkuntza gutxituko hedabideak eratzean, erronketako bat corpus-plangintza da: eguneroko albisteak edo bestelako gaiak hizkuntza gutxitura ekartzean, hitz eta erregistro berriak garatzeko beharra sortzen da (Moriarty, 2009:141). Hedabideetan egunero bilatu behar dira soluzioak hizkuntza arazo berrien aurrean, eta, era horretan, hizkuntza gutxituan berrikuntzak sartzeko kanal garrantzitsu bilakatzen dira (Barandiaran, 2012:131).

Estatus-plangintzari dagokionean, telebista edo irrati bat ez da nahikoa familiako transmisio hizkuntza aldatzeko. Hala ere, kontsumitzaileak hizkuntzarekiko duten jarrera eta pertzepzioa aldatzeko gai izan daitezke, lehenago eremu itxi edo bakandu bateko hizkuntzatut zutena esfera publikoan kokatzen baitute (Ó Laoire, 2000:152). Hizkuntza gutxituen komunitateek esfera publiko aktibo bat behar dute “heldutasun” politikoa lortzeko, eta hedabideek horretan lagundu dezakete (Cormack, 1998:45). Irlandako TG4 telebistaren (Moriarty, 2009:146) edo Korsikako RCFM irratiaren (Jaffe, 2009:152) adibideak hartuta, irlandera edo korsikera “behe mailako” edo “atzerakoi” gisatzat zutenen ikuspuntua aldatzeko balio dutela ikusi da. Hizkuntza gutxituko komunitatea ahalduz gain, ekonomian (ikus-entzunezko industria sortuz) eta kultura transmisioan zein produkzioan ere egiten dute ekarpena (Guyot, 2007:39).

Jabekuntza-plangintzari dagokionean, hedabideek hiztun berriak erakarri ditzakete eta hizkuntzaren ikaste-prozesuan lagungarriak izan daitezke (Ó Laoire, 2000:153). Gainera, zenbaitetan bereziki hiztun berrientzat edo ikasleentzat prestatutako saioak egin ditzakete: Galeseko S4C katean, esaterako, galesera ikasten ari zirenentzat pentsatutako albistegi bat emititu zuten, hartzaileak kontuan izanda erabilitako hizkuntzan zenbait moldaketa eta soiltze egiten zirelarik.

Beraz, hizkuntza gutxituen biziberritzea hizkuntza menderatzailearen esku dauden esparruak bereganatzean datza, eta esparru horietako bat hedabideetako presentzia da. Hizkuntza gutxitudun komunitateetan garrantzi handia eman ohi zaio arlo

horri, eta nolabaiteko indar ekonomikoa duten komunitateetan (Gales, Irlanda, Korsika, eta aurrerago ikusiko ditugun Galizia, Katalunia eta Euskal Herria) komunikabide propioak sortzearen alde egin da. Hizkuntza gutxituko hedabideek hizkuntzaren biziberritzeari egin diezaioketen ekarpena aztertu duten ikerlariak corpus-plangintzan, estatus-plangintzan zein jabekuntza-plangintzan lagundu dezaketela ondorioztatu dute. Hirugarren atalean hurbilduko gara EITBren kasura.

2. EREMU SOZIOEKONOMIKOA ETA EUSKARA: Enpresetako hizkuntza plangintza

Hizkuntza gutxituaren biziberritze prozesuan Fishmanek hirugarren mailan kokatzen du hizkuntza lan harremanetan erabiltzea, hizkuntza ordezkapen prozesuari aurre egin eta diglosia gainditzeko beharrezko urrats gisa. Maila honek komunitatearen botere politikoa indartzen du, baina normalean hizkuntza handiaren komunitateak kontrolatutako esparruetan sartzea dakar. Gutxiengoaren mendekotasuna azaleratzen da egoera horretan, komunitatearen kontrolatik kanpo dauden eragileen menpe geratzeko arriskua baitago. Gainera, transmisioaren esparrutik kanpo geratzen den maila izanik, zaila izan daiteke bertan eragitea (Manterola & Berasategi, 2011:52). Markok (1993:14) gogoratzen digunez, sektore ekonomikoak garrantzi handia du gizartean eta, ondorioz, hizkuntzaren normalizazioan: “Ardatz horren inguruan sortutako zirkuitu ekonomiko-komunikatiboetan erabiltzen den hizkuntza izango da gizarte aurrean benetan baliagarria eta prestigio osoa irabaziko duena”.

2.1. Enpresak euskalduntzeko ahaleginak EAEn

a) Hasierako ahaleginak eta 1990eko salto kualitatiboa

Euskal Autonomia Erkidegoan erakundeek hezkuntzan, administrazioan eta komunikabideetan jarri zuten arreta euskara biziberritzeko lehen planetan (Urdangarin, 1993:32). Lantegiak euskalduntzeko kezkak ere azaleratu ziren, eta 1980ko hamarkadan zehar egindako zenbait ahalegin identifikatu zituen Markok (1993:21): enpresetako konbenio kolektiboetan euskararen gaia jasotzea, sindikatuekin egindako hitzarmenak eta zenbait kooperatibatan antolatutako euskara batzordeak. Edonola ere, horrelako ekintza solteek ezin dute enpresaren euskalduntzea bermatu, eta beharrezkoa da enpresak bere osotasunean asumitutako egituren euskalduntze-plangintza bat (Marko, 1993:29).

Salto kualitatiboa 1990eko hamarkadan gertatu zen. Estandarizazioak indarra hartu ahala, lehen ekimen planifikatuak sortu ziren eta enpresetan euskararen presentzia

areagotzeko metodologia lantzea lortu zen (Euskararen Aholku Batzordea, 2005:25). 1992 eta 1997 bitartean egindako saioek euskararen erabilera areagotzen zela erakutsi zuten, eta euskara-planetan sartzen zihozen enpresa kopurua handitu zen (Euskararen Aholku Batzordea, 2005:26). 1996an Emun kooperatiba sortu zen Debagoienean, besteak beste lantokietako euskalduntzean aritzen den aholkularitza-enpresa. 1999an berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian enpresetako euskara planak zabaltzeko beharra azpimarratu zen, eta 2000tik aurrera Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak (Lanhitz programa) eskaintzen ditu euskara-plana garatu nahi duten enpresentzat (Euskararen Aholku Batzordea, 2005:27).

b) 2000ko hamarkada: planen hedadura eta ziurtagiriak

2005ean, EAEko 15 langiletik gorako enpresetan (6.221) %2 inguruk zuen euskara plana abian (Gardner, 2005:38). Euskararen Aholku Batzordeak eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera bultzatzeko hainbat lan-lerro argitaratu zituen 2005eko txostenean, besteak, beste, enpresetako planak ugaltzea eta baliabideen eskaintza areagotzea. Baliabideen artean, egiaztatze-sistemen eta ziurtagirien beharra aipatzen zen (Gardner, 2005:41).

2000. urtean Bai Euskarari Akordioa jarri zuen martxan Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, gizarte eragileak (tartean, enpresak eta sindikatuak) euskararen normalizazioan inplikatzeko. Akordioan hartutako konpromisoen jarraipena egiteko Bai Euskarari ziurtagiria sortu zen (Gutierrez, 2002:4). Ziurtagiriak egindako lana gizartearen aurrean bermatzeko aukera dakar, zerbitzua euskaraz jasotzeko eskaerari erantzuten dio eta enpresetan normalizazio prozesu bat ahalbidetzen du (Beristain, 2007:12).

Euskalgintzak sortutako ekimen horren ildo beretik sortu zuen Eusko Jaurlaritzak 2008an Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria (2008ko martxoaren 5eko agindua, Kultura sailburuarena). Bikain ziurtagiriak euskararen erabileraren, presentziaren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzeko xedea du, kanpo-ebaluazio baten bidez (53/2009 Dekretua, Kultura Sailarena). EAEko erakunde publiko zein pribatuei bideratua dago, eta hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistema eskaintzen du, EME (Erreferentzia Marko Estandarra). Marko horren ardatzak zerbitzu-hizkuntza (herritarrekiko harremanak eta irudi korporatiboa) eta lan-hizkuntza (barne komunikazioa eta lan-tresnak, pertsonen kudeaketa, kanpo harremanak eta kudeaketa) dira. Elementu horien ebaluazioaren bidez, erakundeek hiru

egiaztapen-maila eskura ditzakete: oinarritzko maila (gutxienez 200 puntu), erdi-maila (500-800 puntu) eta goi-maila (800 puntutik gora).

c) Azken urteetako argazkia

Gaur egun 902 entitatek dute Bai Euskarari Ziurtagiria EAEn (nagusiki enpresa txiki eta ertainak), 441 entitatek parte hartu izan dute Lanhitz programan, eta 329 entitatek eskuratu dute Bikain Ziurtagiria (Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, 2020a:7). Aurrerapenak egin diren arren, euskara plana duten enpresen kopurua %1 baino ez da (Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, 2020b:25). Edonola ere, kontuan izan behar da EAEko enpresen gehiengoa enpresa txikiek osatzen dutela (%98k 10 langile baino gutxiago ditu): 171.371 enpresetatik 1.053k (%0,61) baino ez dute 100 langiletik gora (Eustat, 2020). Hain zuzen ere, euskara planak enpresa handiagoetara bideratu izan dira, eta horietan eman dituzte emaitzak. Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak “Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko plana: 2020-2023” aurkeztu zuen 2020ko abenduan. Horren arabera, datozen urteetarako erronka euskara planak hirigune handietara eta enpresa txikietara hedatzea da. Izan ere, orain arte industria gune euskaldunetan ikusi izan dira emaitzak (Deba artoa, Goierri, Durangaldea), baina eremu sozioekonomikoan euskarari bultzada emateko gakoa hiriburuen ondoko eskualdeetako zein Behe Bidasoako zerbitzu enpresa multzoa izan daiteke (Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, 2020a:22).

2.2. Enpresak euskalduntzeko metodologia

Lan-munduko euskara planen oinarrian, beste plangintza askotan bezala, PDCA zikloa dago (*Plan, Do, Check* eta *Act*). Ziklo horretan planentzako hiru fase zehazten dira (Larrea & Bilbao, 2010:277): definizioa (egoeraren diagnostikoa eta helburuak finkatu), inplementazioa (planaren gauzatzea, aurrera egin ahala beharrezko aldaketak eginda) eta ebaluazioa (aurreikusitakoa zein neurritan bete den ikustea, prozesua eta emaitza aztertuz). Hala, “egoeraren diagnostikotik abiatuta lortu nahi diren helburuetara iristeko egin beharrekoak zehazten dira epe batzuen barruan eta baliabide zehaztuekin” (Larrea & Bilbao, 2010:278).

Larrea eta Bilbaok lau fase bereizten dituzte enpresetako euskara planetan (2010:278-280). Diseinu fasean teknikari edo aholkulariak planaren ezaugarriak definitzen ditu, enpresari buruzko informazioa bilduz eta planaren ardatzak, helburuak zein adierazleak zehaztuz. Planaren helburu nagusia barne eta kanpo harremanetan

euskararen erabilera areagotzea da, euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza nagusia izateko. Era berean, zenbait azpihelburu zehaztu ohi dira, euskaraz egin beharreko eginkizunak edo helburu nagusian aurrera egiteko ekintzak biltzen dituztenak (Elorza et al., 1993:59).

Abiatzean, diseinatutako plana martxan jartzen da. Teknikariak planaren berri ematen die langileei, iritziak biltzen ditu, eta diseinuko helburuak nori dagozkion zehazten du, horretarako epeen eta prozeduren berri emanez. Garapen-fasean gauzatzen dira planak dakartzan aldaketa nagusiak, hizkuntzaren erabilera, euskararen ezagutza eta hizkuntzarekiko motibazioa landuz. Enpresaren eta langileen inplikazioa ezinbestekoa da, eta planaren gidaritza helburu horretarako sortutako euskara batzordeak hartzen du bere gain (Larrea & Bilbao, 2010:280). Azken fasea, garapenean aurreikusitakoa bete ondoren, jarraipen-fasea da. Fase honetan enpresak hartzen du euskararen kudeaketaren ardura, eta teknikari-aholkulariek aldizkako laguntza soilik emango diote. Enpresa gehienetan euskararen jarraipena arautuko duen hizkuntza politika adosten da, erakunde barruan hizkuntzaren kudeaketa araututa gera dadin.

3. EITB ETA EUSKARAREN BIZIBERRITZEA

3.1. EITBren sorrera eta hasierako helburuak

Frankismoa amaituta, 1978ko konstituzioak hizkuntza ko-ofizialen existentzia aitortu zuen espainiar estatuan (3.2 artikulua), eta 1979ko autonomia estatutuak euskararen ofizialtasuna (gaztelaniarekin batera) ekarri zuen Euskal Autonomia Erkidegora (6. artikulua). Erkidegoko erakundeek ia hasieratik erakutsi zuten komunikabide propioak sortzeko nahia, estatutua onartu aurretik ere auzia aztertzeko talde bat sortu baitzen Euskal Kontseilu Nagusian (Díaz-Noci, 1998:446). Gernikako Estatutuak (19.3 artikulua) komunikabide propioak sortzeko eskumena aitortu zion EAERI.

1982an Eusko Jaurlaritzak gobernuaren asmoen artean bildu zuen telebistaren sorrera, jadanik profesionalen formakuntza eta azpiegituren prestaketa bideratuta zeudelarik (Larrinaga, 2019:138-139). 5/1982 Legeak Euskal Irrati Telebista herri erakundea sortu zuen. Hilabete batzuk geroagoko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak (10/1982) hirugarren kapitulua hedabideei eskaintzen zien, euskaraz informazioa jasotzeko eskubidea aipatuz (22. artikulua). ETBren lehen emisioa 1982ko Gabon zahar gauean egin zen, eta emisio erregularrak 1983ko abenduan hasi ziren.

Hizkuntza gutxituko komunikabideak aztertu dituzten autoreek hainbat berezitasun aipatzen dituzte ETBren sorrerako prozesuari buruz. Cormackek (1998) aipatzen zituen arrazoiak gogora ekarriz, berebiziko garrantzia izan zuen testuinguru politikoak: TVE aurreko erregimenarekin lotutako komunikabidezat zuen gizartearen zati handi batek (frankismoaren instrumentu izateaz gain, 1981eko otsailaren 23ko kolpe saiakeran ez zuen informaziorik eman), eta nekez pentsa zitekeen erkidegoetako hizkuntzei bide egingo zienik. Bestalde, Houriganek (2003:80) TV3 (Katalunia), TVG (Galizia) eta ETBren sorreran elite politikoek izan zuten papera aipatzen du: ez zen Galesekoaren antzeko kanpaina herritarrik egon (*bottom-up*), gobernu autonomikoetako agintariak beharrezko instrumentutzat zituzten eta hasieratik eman zieten bultzada (*top-down*). Edonola ere, agintarien egitasmoa izateak ez du esan nahi gizartean bestelako jarrera zegoenik, garaiko gizarteak ere beharrezkotzat baitzituen euskarazko hedabideak (Kelly-Holmes et al., 2009:230).

EITBren sorrerako legean (5/1982) erakunde sortu berriaren lau helburu nagusi aurki ditzakegu (Pavón & Zuberogoitia, 2013):

1. Euskal herritarren informaziorako eta parte-hartze politikorako eskubidea bermatzea.
2. Euskal hezkuntza sistema indartzea eta babestea
3. Euskal kultura sustatu eta hedatzea
4. Euskal hizkuntza, euskara, sustatu eta hedatzea.

3.2. EITBren hizkuntza hautua

a) Estandarraren hautua eta euskalkien lekua

EITBren sorrerako legeak ez zuen euskarazko emisioetarako hizkuntza-eredua aipatzen, baina Eusko Jaurlaritzaren apustua euskara batua zen, administrazioan eta hezkuntzan egin bezala (Torrealdai, 1985). Batetik, euskaldun guztientzako komunikabidea izan behar zuelako, eta, bestetik, oraindik erabat hedatua ez zegoen aldaera estandarrarentzat ezinbesteko bultzada zelako komunikabideetako presentzia (Etxebarria, 1996:547).

Hautu horrek hainbat erronka ekarri zituen, besteak beste, ikus-entzunezkoetarako kode berriak sortzea (3.3. atalean sakonduko da puntu honi buruz), ulergarria zen euskara egiteko beharra eta euskalkien lekua finkatzea. Ulergarritasun arazoaren lekuko, hona hemen 1985an adineko ikusle bizkaitar batek ETBko emanaldiez zioena:

Lokutore batsuk daus ez dakena entendiduten eser (...). Legiduene itxen dere edo estudiadunek dire edo se pa ser, prátikerik es deke. Batsuk urteten deurie eta nik estotset entededuten. Klaro, gutxigora bera baakit se esan gure deren e, baie es entedidu dustis. Baia badau neskato bat klaru iten dana berba (...), hemen antseko euskeri.¹

Batua hautatzeak zenbait eztabaida piztu zituen gizartean, baina euskalkiei ez zitzaaien atea erabat itxi (Torrealdai, 1985). Telebistaren arduradunak kontziente ziren hizkera ezberdinei tokia egiteko beharraz, batuaren aberastasunari eta joskera ezberdinei bide emanda (Larrinaga, 2019:163). Era horretan, euskara batua eta euskalkiak elkarren kontrako beharrea elkarren osagarri gisa ikusi beharra azpimarratu zuen Igone Etxebarriak (1988-2002 tartean EITBn hainbat ardura postu izandakoa, hizkuntza zaintza eta kalitatearekin lotuta): “euskara baturik ezin da egon euskalkirik gabe, ze orduan ez litzateke euskara izango, eta euskararik gabe ez dago batasunik (...). [Euskalkiak eta batua] elkarren kontra ikustea kaltegarria da euskararentzat” (Etxebarria, 1996:552). Filosofia hori EITBren estilo liburuan bildu zen, informazio saioretako kazetariarentzat zenbait irizpide bilduz estandarretik haratago joateko (tokiko kronikak, testuinguru linguistikoa, aberastasuna eman nahia), eta argi utziz gonbidatu zein elkarrizketatuek euren hizkera erabiltzeko askatasuna (Díaz-Noci, 2002:177-178).

Bestalde, albistegi saioez gain, bestelako eduki eta egoeretan (bikoizketa, entretenimendua, umorea eta fikzioa, esaterako) hizkera ezberdinak landu ziren, programa bakoitzarentzat egokien jotzen zirenak (Larrinaga, 2019:164). 2002an EITBk eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako programa-kontratuan euskalkiak bultzatzeko konpromisoa jaso zen, eta 2005ean *EITBrako hizkuntza-funtsak* dokumentua aurkeztu zuen EITBk, telebista eta irratiko euskaraz ordura arte egin ziren gogoetak eta jarraitzeko ereduak jasoz (Larrinaga, 2019:199). Urteak indarrean zeramatzan filosofia bildu zuen

¹ Eulalia Oleaga Ateka (Plentzia, 1908-1997), 77 urte zituela egindako elkarrizketan. Familiako grabazio batetik hartutako elkarrizketa, *Euskal Dialektologia* ikasgaiaren (2018-2019 ikasturtea) Plentziako euskara aztertzeko erabilia.

dokumentuak, eta lehen aldiz EITBren euskara-eredua batua zela jaso zuen, euskalkiek ere lekua zutela azpimarratuta. 2020ko irailean dokumentuaren bertsio eguneratua aurkeztu zen, EITBn tokia duten genero guztietako (albisteak, kirolak, bikoizketa, fikzioa, entretenimendu saioak eta, kasu berezi gisa, Gaztea irratia) erreferentziazko hizkuntzaren nondik norakoak biltzen dituen (Euskal Irrati Telebista, 2020b).

b) Euskararen presentzia programazioan: ETB1 / ETB2

Telebistako emanaldietarako hizkuntzari zegokionez, ETB sortu zenean bi jarrera bereizi ziren. Alde batetik, Ramon Labaienentzat (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, 1980-1983) helburua euskaraz soilik emitituko zuen telebista zen (Pavón & Zuberogoitia, 2013). Beste aldetik, ETBren sorreran parte hartu zuten langileek kate elebidunaren apustu argia nabarmendu dute, gaztelaniaz soilik zekiten herritarren eskubideak ere bermatu behar zirela argudiatuta (Torrealdai, 1985). Lehen zuzendaritzak egitasmo elebiduna izan zuen buruan: hasierako emisioetan euskarak %60 eta %90 arteko presentzia zuen, eta gaztelaniak %10etik %40ra bitartekoa (Aranberri, 1995:81).

Hasieran saio elebidunak programatu baziren ere, emisio erregularrak hasterako hizkuntza bakoitzak bere ordu-tartea izatea erabaki zen (Aranberri, 1995:82). Hala, “elebakartasun paralelo” deritzon ereduak ezarri zen (Larrinaga, 2019:159): egunean albistegi bana egiten zen euskaraz eta gaztelaniaz, eta euskaraz egindako gainerako saioetan gaztelaniazko azpidatziak erabiltzen ziren. Paradigma aldaketa 1986an gertatu zen, bigarren katearen sorrerarekin. Ordutik, ETB1 euskarazko katea da, eta ETB2 gaztelaniazkoa. ETB1en gaztelaniazko azpidatziekin jarraitu zen (haur programazioan salbu) 1993ra arte (Larrinaga, 2019:177). Antzeko bidea egin zuen euskararen presentziak Euskadi Gaztea irratian (2008tik Gaztea), 1990ean gazteleraz eta euskaraz hasi baitzituen emisioak, eta 1992an euskara hutsera igaro zen. Hizkuntza gutxituko hedabideetan emanaldi guztiak hizkuntza horretan emititzeko garrantzia azpimarratzen du Houriganek, Eskoziako CTGren esperientzia aipatuz, gaeleraren emisio-tarteak gero eta urriagoak bihurtzea ekarri zuen adibide bezala (Hourigan, 2003:120).

Bi kateren bereizketak filosofia aldaketa ekarri zuen ETBra, eta sorrerako helburuen banaketa egin zen ETB1 eta ETB2ren artean: euskarazkoari euskal kultura eta hizkuntza sustatzea zegokion, eta gaztelaniazkoari herritarren informazioa eta parte-hartze politikoa (Amezaga, 2013:33). Horrek gizarteko diglosia telebistan islatzeko arriskua ekarri zuen, eta bi kanalen programazioak baldintzatu, Aranberri (1995:84)

dioenez: “euskararen mesedetan hartutako lehentasunak ahuldu egin ziren eta erdaraz hasi zen egiten euskaraz egiterik ez zegoen hainbat programa mota”. ETB1en kultura, kirola, umorea, barne-produkzioko telesailak eta haur programazioa (ETB3 sortu arte) nagusitu bitartean, ETB2ra informazioa, analisi politikoa, debatea eta kanpo-produkzioa bideratu izan dira (Larrinaga, 2019:160). Hala ere, ETB1 erreferentziazko kanala da hizkuntza gutxituko hedabideen artean genero-gutzizkotasunari dagokionez (normalizazioan eragiteko ezinbestekoa), Kataluniako TV3 eta Galesko S4Cekin batera (Moring, 2007:26). Azken hamarkadako EITBren plangintzetan, komunikazio sektoreak izandako eraldaketa eta euskararen ezagutzaren gorakada kontuan hartuta, gaztelaniazko emanaldietan euskararen ikusgaitasuna bultzatzeko estrategia indartu da (Larrinaga, 2019:237).

3.3. EITB eta corpus-plangintza

Arestian aipatu dugun bezala, EITB sortu zenean estandarraren kodifikazioa hastapenetan zegoen. EITB estandarraren inplementazioan lehen lerroan kokatzea ekarri zuen horrek, ordura arte euskaraz egin ez ziren edukiak sortu baitzituen komunikazio taldeak. Hiztun komunitatearentzat indar kohesionatzailea izan zen, estandarizazioa azkartuz. Corpus-plangintzan euskarari ekarri diona aztertzeko, bi ataletan egindako lanketa laburbilduko dugu: albistegietako euskara eta hizkera berriak.

a) Albistegietako euskara

Eguneroko informazioak hainbat arazo linguistiko sortzen zituen EITBko erredakzioan, besteak beste, gai zehatzetako (ekonomia, nazioarteko politika, toponimia...) terminologia edota esamoldeak euskarara ekartzean. Erakunde arau-emailea Euskaltzaindia izanik, EITB arau horien zabalkunderako tresna nagusia zen (Moriarty, 2007:102). Bi erakundeak hasieratik egon dira harremanetan EITBren emanaldietako euskararen kalitatea zaintzeko, baina EITBko kazetari eta hizkuntzalariak (1987an kontratatu ziren lehen hizkuntzalariak) bidea urratu behar izan zuten akademiak arautu gabeko gaietan, besteak beste, ahoskeran (Larrinaga, 2019:165).

Albistegietako euskararen lanketan, EITBko hizkuntzalarien lana kazetarien premietara moldatu zen, eta erredakzioan erabiltzeko eskuorriak (“zabalkunde orriak”) prestatu zituzten, ohiko akatsak, gramatika azalpenak, glosarioak eta bestelakoak bilduz (Larrinaga, 2019:168). Horrekin batera, kazetari eta komunikatzaileen formazioa bultzatu

zen, ikastaroak antolatuz. EITBn egindako lana gizartearen esku utzi da, eta aro ezberdinetan landutakoa hiru eskuliburutan argitaratu da: *Euskarazko albistegietarako esku-liburua* (1992), *Euskarazko albistegietarako esku-liburua II* (2007) eta *Albiste testu bikainak* (2013). Liburu hauen ardatza, zuzentasunetik haratago, ‘euskara laua’ dela esan dezakegu (*plain language*), hizkera argia eta erraza, estilo neutrokoa, EITBren emanaldi gehienetan (fikzioa eta entretenimenduko saio batzuk salbu) erabili beharrekoa (Larrinaga, 2008).

Halaber, urteetan egindako lana bilduz, EITBko Euskara Zerbitzuak HIKEA (Hizkuntza Kontsultak Egiteko Aplikazioa) garatu zuen, 2009tik sarean eskuragarri dagoen kontsultarako datu-base lexiko eta terminologikoa (Larrinaga, 2019:269). 2003tik aurrera Euskaltzaindiarekin egindako hitzarmenak (2021ean seigarrenez berritua), gainera, Lexikoaren Behatokiaren esku utzi ditu EITBn sortutako testu eta gidoiak. Euskaltzaindiak estrategikotzat hartzen du EITB euskararen normalizazioan, duen hedadura eta hizkuntza sustatzeko ahalmena kontuan hartuz (Euskaltzaindia, 2021). EITBk arrakastaz hedatutako hitzen adierazgarri koronabirusaren pandemiak ekarritakoak ditugu, esaterako, *deseskalatze* eta *musuko*.

b) Hizkera berriak

ETB martxan jarri zenean programazioa beste hizkuntzetatik bikoiztutako saioekin osatzeko apustua egin zen, saio propioak sortzea baino aukera merkeagoa zelako, eta estandarra hedatzeko bide egokia zelako, bereziki haurrentzako marrazki bizidunen bidez. Ikus-entzunezkoak erabat berriak ziren euskararentzat, eta, albisteekin gertatu bezala, errealitate zein espazio kultural berrietara egokitu behar izan zen hizkuntza.

Helduentzako fikzioari dagokionez, *Dallas* (1983-1984) izan zen aitzindaria. Hasierako urteetan itzulpenetan koordinazio falta egon zen, eta 1990eko hamarkadan Euskara Saila bikoizketen kalitate linguistiko-artistikoa kontrolatzen hasi zen. Kontrol horietan, hizkera dramatikoan ezarritako euskara-eredu erreferentziala betetzen zutela egiaztatu behar zen (Barambones et al., 2012:416). Euskara sinesgarria, bizia eta ahozkotasanari lotua zen helburua (Larrinaga, 2019:171). 2000ko hamarkadan bikoizketa enpresen, itzultzaile-egokitzaileen eta ETBren arteko sinergiak indarra hartu zuen, eta egindako lana bateratzeaz gain elkarrekin jardun zuten arazoak sortzen zituzten hizkuntza-gaiak (errepikatutako esaldiak, hitanoaren erabilera...) konpontzeko

(*Bikoizketa elkarlanean* txostenak). Lanketa horrek azken emaitzaren kalitatea hobetu zuen (Arca, 2020:235). Bildutako ekarpen lexiko eta terminologikoak HIKEAn kontsulta daitezke.

Lehen hamarkadetan zuzentasunean jarri zen fokua, baina euskara-eredu estandarra finkatu ahala kezka egokitasunera igaro zen. Hala, bai euskaraz egindako bai bikoiztutako telesailetan erregistro berrien beharra ikusi zen, nabarmenki, euskara kolokialarena (Belmar, 2017:48). *Goenkale* (1994-2015), *Wazemank* (2005-2006) eta *Mugaldekoak* (2010) bezalako telesailetan, hizkuntzaren bidez pertsonaiak karakterizatzeko baliabideak garatu ziren, besteak beste, euskalkiak. Hizkera kolokiala, halaber, bikoiztutako produktuetan landu izan da gehien. 2010eko hamarkadan bikoizketa ia desagertu egin zen, marrazki bizidunetara mugatuta, eta esan daiteke horrek galga jarri diola lanketa prozesuari (Barambones et al., 2012:418). Azken urteetan hizkera kolokiala garatzeko aukera berriak suertatu dira, tartean *Merlí* telesaila 2018an, euskara kaletar eta garaikideagoa lantzea ekarri zuena (Larrinaga, 2019:255). ETBn landutako euskararen hitzak eta esamoldeak HIKEA aplikazioan kontsulta daitezke, eta, 2020an, *Euskara kolokialaren eskuliburua* (Larrinaga, 2020) argitaratu zen, hamarkadatan egindako lantze funtzionala biltzen duen baliabidea.

3.4. EITB eta estatus-plangintza

Frankismoaren ondoren, euskarak esparru publiko guztiak zituen eskuratzeko, eta horretan funtsezkoa zen hedabideen laguntza (Sinner, 2017:403). ETBren sorrerak euskara esfera publikoan kokatzeko balio izan zuen, gaztelaniaren monopolioa hautsiz. Hedabideetako presentziak euskara beste edozein hizkuntzaren parean jarri zuen, eta informatzeko, entretenitzeko edo eguneroko bizitzarako baliagarria zela erakutsi. Hala, gainerako hizkuntza gutxituko hedabideen antzera (Ó Laoire, 2000:152 eta Cormack, 2004:4), estatus-plangintzan bi ekarpen handi egin zituen EITBk: hizkuntza-jarreraren aldaketa eta euskarazko ikus-entzunezko industriaren garapena.

a) EITBren eragina hizkuntza-jarreretan

Telebistak modernotasuna eman zion euskarari, ordura arte hizkuntzari zein hitzunei lotutako estereotipoak (zaharkitua, etxeko hizkuntza, isilkorrak...) hautsiz. Euskarak edozein espazio publiko okupa zezakeela erakutsi zuen, eta hala islatu zen bere programazioan. Larrinagak (2019:145) dioenez, Euskal Herriko festen, bertso-saioen,

ikastolen jaialdi eta bestelako emanaldien bidez, “euskara denbora-pasa izan zitekeela erakutsi zen, euskararen inguruan lagunak eta ezezagunak elkartzen zirela”. Gainera, *Firin Faran* eztabaida saioak pertsona ezagunak jarri zituen pantailan euskaraz, “euskaldun isilkor eta *show-rik* ez egiteko zalearen irudia suntsituz” (Larrinaga, 2019:146).

Fikzioak ere euskara beste hizkuntzen pare jartzen lagundu zuen. Alde batetik bikoizketa bidez egindako jauzia aipa daiteke (3.3.b), euskara eremu berrietan txertatzeko funtsezkoa. Aranberrik *Dallas* telesaila jartzen du adibide: “euskara jalgi hadi kanpora delako leloaren oihurik adierazgarrienetakoa izan zen, aktore beltzek euskaraz egiterik ba ote zuten eztabaidatu ohi zen garai haietan” (Aranberri, 1995:88). Beste aldetik, barne produkzioan *Bi eta bat* (1991-1993) *sitcom* telesailaren arrakasta ere nabarmentzekoa da, euskarak ustez izan zitzakeen komunikazio-zailtasunak gainditu baitzituen (Aranberri, 1995:87).

Azkenik, batuaren erabilerak (3.2.a) aldaera estandarrari prestigioa eman zion, prestigio gehieneko eta maila goreneko aldaera bihurtzen lagundu ziona (Kelly-Holmes et al., 2009:231). Prestigio jarreretan eragiteko faktore garrantzitsua da hizkuntzen biziberritzean: ez da nahikoa erakundeen jarrera positiboa, hiztunek ere aldeko jarrera izan behar dute (Dorian, 1998). Lehen hamarkadetako oztopoak gaindituta, EITBri euskararen estatusa eta gizarte-prestigioa sendotzea dagokio, eta horretarako erronka nagusietako bat euskarazko audientzia indartzea da.

b) EITB eta euskal ikus-entzunezko industria

Cormackek hizkuntza gutxituko hedabideek bultzada ekonomikoa sor dezaketela dio (2004:2), eta horixe bera gertatu zen EITBren sorrerarekin 1980ko hamarkadan. Azpiegituz gain, telebistaren funtzionamendurako hainbat sektorek osatutako ikus-entzunezko industria behar zen: kazetariak, gidoilariak, ekoiztetxeak, itzultzaile-egokitzaileak, aktoreak, aurkezleak, bikoizketa enpresak, banatzaileak... Industria hori EITBren inguruan egituratu zen (Larrinaga, 2019:147).

Era horretan, EITBk euskarazko kazetaritza eta bestelako sektore horien formakuntza eta profesionalizazioa bultzatu zuen. Euskaraz lan egiteko aukera berriak sortu zituen, bai EITBn bai EITBekin lotutako bikoizketa enpresetan edo ekoiztetxeetan.

3.5. EITB eta jabekuntza-plangintza

EITBren sorrerako helburuetan (3.1. atala) euskal hezkuntza sistema babestea dago, eta horrek, jabekuntza-plangintzarekin lotzen du. EITBren sorrerak jendea euskara ikastera animatu zuen, eta rol aktiboa jokatu du euskararen ezagutza sustatzeko (Larrinaga, 2019:178). Bi arlo dira aipagarriak: haurren programazioa eta saio didaktikoak.

a) Haurren programazioa

Haur programazioaren aldeko apustua eginda, arlo horretako eskaintza zabala dugu konpromiso horren adierazle nagusia: ETB1en programazioaren %30 inguru hartzen zuen, eta 2008tik ETB3 kate tematikoan emititzen dira haur zein gaztetxoentzako edukiak (Moriarty, 2007:121). Telebistaz gain, jaialdiak, kontzertuak, aldizkariak eta bestelako produktuak ere antolatu dira EITBren baitan, fidelizazio-kluben bidez: *Superbat* (1993-2000), *Betizu* (2001-2011) eta, 2011tik aurrera, *Hiru3* (Larrinaga, 2019:231). Haur eta gazteen aisialdian presente egonda, euskara hezkuntza sistematik kanpo zabaltzen die. Irlandan bezala, audientzia hori bereganatuz haurren artean euskara sustatzea eta euren gaitasun linguistikoa hobetzea da eskaintza honen funtzioa (Barambones et al., 2012:414).

b) Saio didaktikoak

Haurren programazioaz gain, helduen euskalduntzera bideratutako zenbait saio ere sortu dira EITBn bere historian zehar, helburu didaktikoarekin. Berezi horretarako sortutako saioak emititzen hasi baino lehen ere saiakera bat edo beste egin zen ETBren saioak euskaltegietan erabiltzeko, eta saio didaktikoen beharra azpimarratu zen (Iturburu, 1984).

1986tik 1990era *Bai horixe* saioa emititu zen, euskaltegietako ikasleei bideratutako ikastaroa, HABEren laguntzarekin ekoizitakoa (Kelly-Holmes et al., 2009:231). 1996an, bikoizketako euskara lantzeko ahaleginen baitan, helduen euskalduntzerako ahalegin berezi bat egin zen *Zine Oro* saioan (Larrinaga, 2019:174). Sei pelikularen bikoizketan arreta berezia jarri zen, ETBko hizkuntzalarien kontrola handituta, eta euskaltegietarako materiala ere prestatu zen.

Kerman mintzalagun bila (2010-2011) umorezko telesaila ere HABEren laguntzaz egin zen, euskaltegi-tako ikasleei bideratua. Berezko saioak sortzeaz gain, EITBren bestelako saioak ere erabili dira ikas-materiala prestatzeko (Larrinaga, 2019:285).

Bestalde, euskara ardatz duten entretenimendu saioak edo dokumentalak ere emititu dira. Aitzindaria *Balinda* (1993-1994) lehiaketa izan zen, hizkuntza eta umorea ardatz zituen lehiaketa (Larrinaga, 2019:178). Bestalde, nabarmentzekoak dira *Errazu* (2009), arlo ezberdinetan erabiltzen zen euskara ezagutarazteko saioa, *Tribuaren berbak* (2013-2015), euskarari buruzko erreportaje saioa, eta *Euskaraldia: Gehiago* (2020), euskararen inguruko testigantzak biltzen zituen saioa. *Mihiluze* (2006-2013) lehiaketa izan da arlo horretan saio arrakastatsuenak. ETB1en ikurretako bat bihurtu zen, 1.000 ataletik gora emititu ziren, eta formatua Kataluniako TV3 kateak ere moldatu zuen (*Bocamoll*).

4. EITB ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA PLANGINTZA

4.1. EITB euskara planerako bidean

EITB sortu zenean zerbitzu-hizkuntza nagusia euskara izan arren, lan-hizkuntzan gaztelania nagusitu zen hasieran (Aranberri, 1995:85). Hizkuntza eskakizunei zegokienez, euskarako emisioa ugaritu ahala euskara-mailaren eskakizuna zorroztu egin zen. Eskakizun horiek ez ziren lanpostu guztietan berberak, eta meritu soilik ziren gaztelaniazko zerbitzua eman behar zuten taldeko hedabideentzat (ETB2, Radio Euskadi eta Radio Vitoria). Egoera horrek, Aranberriek dioenez (1995:86), lan-taldeen hizkuntza-katea hautsi zuen zenbaitetan, kide bakar batek euskaraz ez bazekien talde osoak gaztelaniara jotzen baitzuen.

Edonola ere, planen beharrik gabe EITB beste enpresak baino aurrerago joan zen euskararen ezagutzan eta erabileran, esaterako, euskara ikastaroak antolatuz (Larrinaga, 2019:207). Horren adibide izan daiteke Eusko Jaurlaritzak ez zuela EITB euskalduntzeko beharra ikusi herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua zehaztu zuenean (86/1997 Dekretua): ez zuen EITB aipatzen, eta euskara plana martxan jartzeko derrigortasunak (4. artikuluan) ere ez zion eragin.

Posizio hori bermatzeko eta indartzeko beharra 2008ko lan-hitzarmenean bildu zen, eta 2009-2013 epealdiko plan estrategikoaren ildoetako bat enpresan euskararen

erabilera normalizatu beharra izan zen (Larrinaga, 2019:203). 2011n Emun aholkulari- enpresari esleitu zitzaion diagnostikoa egiteko ardura, eta Euskara Batzordea eratu zen (langileen eta zuzendaritzaren bosna ordezkarekin). Diagnostikoa 2012 hasieran egin zen, eta planaren ildo estrategikoak zein helburu zehatzak adostuta, EITBren Zuzendaritzak 2013an abiarazi zuen (Larrinaga, 2019:208).

4.2. Lehen euskara plana (2013-2016)

Euskara planak hiru urterako epealdia zuen, eta bi ildo estrategiko zituen. Lehena lan-hizkuntzari zegokion: “Euskal Irrati Telebistak euskaraz funtziona dezake”. Bigarrena, aldiz, EITBren funtzio sozialarekin, zerbitzu-hizkuntzarekin eta irudi korporatiboarekin lotua zegoen: “Euskal Irrati Telebistak euskaldun irudia zabaltzen du kanpoan” (EITB & Emun, 2012:8).

Ildo estrategiko bakoitzari bost helburu esleitu zitzaizkion. Helburu bakoitzarentzat taula bat prestatu zen. Bertan helburuaren deskribapena egiten zen, eta arlo zehatzetarako ekintzak (azpichelburuak) bildu ziren. Ekintza bakoitzak epea eta arduraduna edo aurrera eraman behar zuen taldea zituen, eta planaren indarraldian zehar haren betetze-mailaren jarraipena egiten zen (adibide gisa, ikusi 1. taula).

2.4. HELBURUA: Gizartean euskararekin lotuta antolatzen diren ekitaldietan EITB presente egotea										
2016.12.31ko EGOERA										
(a) EITBk gune bat antolatzen du ikastolen jaietan										
(b) EITBk gune bat antolatzen du Durangoko azokan										
(c) EITBk Hiru3 jaia antolatzen du ikasturtearen amaieran										
(d) EITBk Euskararen Nazioarteko Egunean ekitaldi mediatikoa antolatzen du										
URR.	EKINTZA	NOIZKO				BETETZE MAILA				JABEA
		2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	
(a) 01	Ikastolen jaietan gune bat antolatu	EITB	EITB	EITB	EITB	OK	OK	OK	OK	Promoz. eta Irudia / Kanal Berriak
(b) 01	Durangoko Azokan gune bat antolatu	EITB	EITB	EITB	EITB	OK	OK	OK	OK	Promoz. eta Irudia
(c) 01	Ikasturte amaierako jaia antolatu Hiru3 komunitateko bazkideentzat	EITB	EITB	EITB	EITB	OK	OK	OK	OK	Promoz. eta Irudia / Kanal Berriak
(d) 01	Euskararen Nazioarteko Egunean berriazko saioak programatu		ETB/ EI NET	ETB/ EI NET	ETB/ EI NET		OK	OK	OK	Zuzendaritza

1. Taula: 2013-2016 euskara planeko 2.4 helburuari dagokion taula, burututako ekintzak, urtea, betetze maila eta jabea/arduraduna biltzen dituena. Iturria: Euskal Irrati Telebista, 2017 (egileak moldatua).

Planaren indarraldia amaitzean, 2016an, aurreikusitakoaren %80 bete zen. Lorpen garrantzitsuen artean, EITB taldeko enpresa guztien (ETB, EITBNET, Eusko Irratia) lanpostuetarako euskara-eskakizunak zehaztu ziren, lan-zentroaren, betekizunen eta prestakuntza-mailaren arabera. Ez zen lortu eskakizun horiek lan-hitzarmentan sartzea, langile batzuen aldetik desadostasunak egon zirelako, baina *de facto* aplikatu ziren lan-eskaintzetan edota lan-poltsaren baremazioetan (Larrinaga, 2019:220). Horrekin batera, langile bakoitzari behar zuen maila eskuratzen laguntzeko baliabideak ezarri ziren. Eskakizunak indarrean jarri zirenetik kontratatuko langile berrien %100ek bete dute zegokiona. Gainera, EITBko langileen hizkuntza-argazkia egin zen, eta %80k euren lanpostuaren eskakizuna gaindituta zutela ikusteaz gain, langileen erdiak C1 edo C2 maila zuela ere ikusi zen (Larrinaga, 2019:220).

Beste ekarpen nagusietako bat *Jardun elebidunerako liburuxka praktikoa* (JELP) eskuliburua argitaratzea izan zen. Planaren lehen ildoko bi helbururekin lotuta zegoen liburua: lan prozesuak euskaraz egin daitezkeela bermatzea, eta euskararen lehentasunezko erabilera erraztea parte-hartzaile guztiak elebidunak diren lan-prozesuetan. Eskuliburuak enpresako eguneroko jardueretan (dokumentuak, memoriak, bileren aktak, gutunak, kontratuak, emailak, egoitzetako seinaleak, aplikazio informatiboen interfazea, batzarrak, telefonoko eta harrerako lehen hitza...) erabili beharreko hizkuntza zein zen finkatu zuen. Lehentasuna eman zitzaion euskarari, arlo askotan (emailak, seinaleak, bileren hizkuntza...) erabiltzeko hizkuntza euskara baitzen, eta bestela euskaraz zein gaztelaniaz egin behar zirela zioen eskuliburuak (Euskal Irrati Telebista, 2016).

JELP eskulibururi euskarazko jarduna edo jardun elebiduna errazteko hainbat tresna gehitu zitzaizkion, besteak beste, bileren aktak egiteko txantiloiak, batzarrak euskaraz egiteko jarraibideak, hizkuntza-baliabideen zerrenda eta emailetan erabiltzeko esamoldeak.

Hainbat arrazoiengatik bete ezin izan ziren helburuak planaren hurrengo epealdira igaro ziren. Halaber, planaren ahulguneetako bat langileen parte-hartzea izan zen, eta 2017-2020ko planean hori zuzentzeko ahaleginak egin beharraz ohartarazi zen.

4.3. Bigarren euskara plana (2017-2020)

Euskara plan guztien arrakastarako funtsezkoa da langileen parte-hartzea, era horretan motibazioa eta atxikimendua sendotu ahalko direlako, eta euskararen erabileran

aurreratu (Elorza et al., 1993:59). Lehen planean atal hori landu zen, planaren inguruko informazioaren eta aurrerapenen berri ematen langileei, batzarren bidez zein intraneteko albisteen bidez. Lehen planaren epealdia amaituta, Euskara Batzordearen kezka nagusia laneko euskararen erabilera izan zen (Larrinaga, 2019:221).

Bigarren planak ere hiru urteko indarraldia izan zuen, 2017tik 2020ra, eta lehen planaren eskema bera jarraitu zuen. Hirugarren ildo estrategiko bat gehitu zitzaion, langileen artean euskararen erabilera sendotzeko asmoz: “Euskal Irrati Telebistako langileak euskara enpresan normalizatzeko prozesuan inplikatzeko dira” (Euskal Irrati Telebista, 2020a).

Ildo horretan, Elhuyar enpresaren Eusle metodologia jarri zen martxan 2017an, langileen hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Hainbat talde eratu ziren, euskararen erabileraren aldetik egon zitezkeen arazoak identifikatzeko eta aurrera egiteko ekintzak zehazteko. Garatzeko hiru lerro identifikatu ziren: 1) pertsonak kontzientziatzea lankideekin euskaraz egiteko, 2) euskaraz lan egiteko baliabideak ezagutaraztea eta 3) prestakuntza eskaintzea (Euskal Irrati Telebista, 2020a). Lantaldeen dinamika ez zuen jarraipenik izan 2017-2018 ikasturteetik harago, saioak motelak izan zirelako eta ez zutelako parte-hartze handirik lortu. Edonola ere identifikatutako lerroetan sakondu zen, eta 2019an lehen aldiz C2 ikastaroak eskaintzen hasi zen EITB (Euskal Irrati Telebista, 2020a).

Eusle dinamikaren jarraipen gisa uler daiteke 2018ko Euskaraldia (azaroaren 23tik abenduaren 3ra), euskararen aldeko gizarte-eragileek eta erakundeek martxan jarritako ariketa soziala. Ekimenaren helburua hizkuntza-ohiturak aldatzea da, 11 egunetan euskara erabiltzeko konpromisoa hartuz (*ahobizi* rolean), edo euskaraz ulertzen dutenek jendeari hizkuntza horretan mintzatzeko gonbidapena luzatuz (*belarriprest*). Ekimenaren berri eman zitzaion langileei, eta parte hartzera animatu.

2020an Euskaraldiaren bigarren edizioa antolatu zen. Berrikuntza nagusia *ariguneak* izan ziren, euskaraz aritzeko aukera bermatzen duten guneak. Edizio honek oso jarraipen mugatua izan zuen, koronabirusaren pandemiagatik. Lantokietako segurtasun-neurriek (telelana, bileretako pertsonen mugak, eremu komunak itxiera...) oso zaila egin zuten ariguneak prestatzea eta euskarazko harreman-sareak hedatzea. Era berean, euskara planaren azken urtea erabat baldintzatu zuen osasun egoerak, eta zenbait ekintza (esaterako, ekitaldi publikoak) ezin izan ziren gauzatu. Hala ere, planaren %85

bete ahal izan zen. Lehen planean ezarritako hizkuntza-eskakizunen dokumentua alde guztiek sinatzea lortu zen (Euskal Irrati Telebista, 2020a).

4.4. Hirugarren euskara plana (2020-2022)

Hirugarren euskara planak hainbat berrikuntza ekarri zituen. Eusko Jaurlaritzak administrazioan eta herri-erakundeetan euskara normalizatzeko irizpideak zehaztu zituen. Oinarrian Bikain ziurtagiria zegoen, erakunde guztietan elementu eta adierazle berberen araberrako planifikazioa eta ebaluazioa gauzatzeko (Eusko Jaurlaritzak, 2018:7). Era horretan, Eusko Jaurlaritzako sailei, erakunde autonomiadunei eta euren menpeko sozietate publikoei Bikain ebaluazio prozesuan izena ematera dei egiten zitzairen.

Eusko Jaurlaritzaren irizpideekin lerratzeko, Emun enpresarekin planaren ereduak Bikain markora moldatzeko kontratua sinatu zen 2019an. Ebaluazioaren aurretik (Euskal Irrati Telebista, 2020a) zerbitzu-hizkuntza bermatuta zuela adierazi zen, eta barneko funtzionamenduaren “zati esangarri bat” euskara hutsez egiten zela azpimarratu zen. Aurreko planen esperientziatik eta Bikainen Erreferentzia Marko Estandarretik abiatuta, bi urterako plan berri baten zirriborroa prestatu zen 2020an.

Plan berrian bost ekintza nagusi bildu ziren: 1. Komunikazioa eta irudia euskaraz izatea, 2. Zerbitzu-hizkuntza bermatzea, 3. Euskaraz lan egiteko testuinguruak sortzea, 4. Kudeaketa sistema aztertzea, eta 5. Komunikazioa eta inplikazioa lantzea. Covid-19aren pandemiak zenbait oztopo eragin ditu datu-bilketarako edo planaren aurkezpenak antolatzeke, baina 2022an Bikain ebaluaziora aurkeztea da asmoa, ziurtagiriaren goimaila lortzeko helburuarekin.

5. ONDORIOAK

Sarreran esan dugun bezala, EITBk euskararen biziberritzean egindako ekarpenari hurbilketa bat egiten saiatu gara lan honetan. Azterketa hori bi alderditatik egin dugu: EITB hizkuntza gutxituko hedabide gisa aztertu dugu, euskararen biziberritzean izandako eragina corpus-, estatus- eta jabekuntza-plangintzatik begiratuta; baina, era berean, EITB enpresa gisa ere aztertu dugu, erakundearen baitan martxan jarritako euskara planei erreparatuta.

Hizkuntza gutxituko hedabide gisa, EAEko erakunde bultzadaz sortu zen, eta euskara sustatzea hasieratik esleitu zioten helburu gisa. Fishmanen belaunaldien arteko etenaren eskalan hizkuntza gutxituen hedabideetako presentzia oso maila altuetan ageri

da, aurretik egindako urratsen indargarri gisa soilik, besteak beste, familiako ahozko transmisioa eta alfabetatzea bermatuta daudenean (Fishman, 1991:395). Euskal testuinguruan, ordea, ez zen bide hori jarraitu: diktaduratik aterata, euskara eremu publiko guztietara hedatzeko beharra zegoen, eta telebistaren sorrera ezinbestekotzat ikusten zen (Torrealdai, 1985). Era horretan, euskarazko hezkuntza sistema abian jarri eta urte oso gutxitara jarri zen martxan EITB. Hain zuzen ere, EITB, hezkuntza eta administrazioaren euskalduntzea izan ziren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen (10/1982) zutabeak. Era horretan, 1980ko hamarkadan hasitako euskararen biziberritze prozesuarekin batera egin du aurrera EITBk, eta, sorrerako helburuetan ezarritakoari jarraituz, prozesu horren eragileetako bat izan da.

EITB euskara batuaren hedapenerako tresna nagusietako bat izan zen, hasieratik aitortu baitzioten hiztun komunitatea kohesionatzeko ahalmena bai Euskaltzaindiak bai Eusko Jaurlaritzak (Moriarty, 2007:102). Estandarraren kodifikazioaz haratago, telebistak euskarari ireki zizkion eremu berrietan erabili beharreko hizkuntza landu behar izan zen EITBn (Larrinaga, 2019:165). Corpus-plangintzan arreta gehien jaso duten alderdiak albistegietako euskararen arautzea eta fikzio saioetan erabiltzeko “batua kolokiala” delakoaren lanketa izan dira.

Euskararen estatusari dagokionez, euskara egunero milaka etxetan sartzeko aukera ekarri zuen EITBk, askotariko edukiak ekoitziz. Era horretan euskararen prestigio soziala indartu zuen, normalizazio prozesu batean beharrezkotzat jotzen den urratsa, eta ordura arte hizkuntzak zituen aurreiritziak hausten lagundu zuen (Larrinaga, 2019:145). Bestalde, euskararen jabekuntza sustatzeko asmoz berebiziko garrantzia eman zitzaion haur programazioari (Moriarty, 2007:121), eta helduen euskalduntzerako hainbat saio emititu izan ditu EITBk bere historian zehar. Laburbilduz, EITBk ekarpen garrantzitsuak egin dizkio euskararen biziberritzeari corpus-plangintzan, estatus-plangintzan zein jabekuntza-plangintzan.

EITB enpresa gisa aztertuta, ikusi dugu hastapenetan zerbitzu-hizkuntza gisa euskara hartu zuen erakundea izan arren ez zela lan-hizkuntza gisa euskara orokortzea lortu (Aranberri, 1995:85). Maila bereko enpresa eta erakundeekin alderatuta aurreratuxeago zihoan arren, 2013an jarri zen abian euskara plana. Plana eredu tradizionaletik aldendu zen neurri batean, eta lan- zein zerbitzu-hizkuntza uztartzeaz gain euskararen promozioa eta euskaldunen irudia zabaltzea ere hartu zituen ildo

estrategikotzat. Planaren bigarren fasean langileen parte-hartzea bultzatu nahi izan zen, arrakasta mugatuarekin. Edonola ere, planaren bi epealdiren ondoren euskarazko zerbitzua bermatuta dagoela ondorioztatu da, eta lan-hizkuntza gisa ere presentzia esanguratsua duela. Era horretan, EITB datozen urteetan Bikain ziurtagiria lortzeko bidean dago.

Aurrera begira, ikerketa interesgarriak izan daitezke EITBren lana beste herrialdeetako hedabideen lanarekin alderatzeko saioak, hizkuntza gutxituko hedabideek hizkuntzaren biziberritzean egin ditzaketen ekarpenak zehatzago definitzeko. Era berean, EITBren euskara planaren analisi sakonagoa egin daiteke, bestelako erakunde publikoetako eta enpresetako ereduarekin alderatuz.

BIBLIOGRAFIA

- Amezaga, J. (2013). Euskal Telebista 30 urteren ostean. *Jakin*, 194/195, 11–50.
- Aranberri, L. A. (1995). ETB: 25. Urteurrenaren bidean. *Jakin*, 89, 77–94.
- Arca, M. (2020). Katalanezko, euskarazko eta galegozko bikoizketarako itzulpenaren ikuspegi historikoa. *Senex: itzulpen aldizkaria*, 51, 223–243.
- Barambones, J., Merino, R., & Uribarri, I. (2012). Audiovisual Translation in the Basque Country: The Case of Basque Television-Euskal Telebista (ETB). *Meta*, 57(2), 408–422.
- Barandiaran, A. (2012). Hedabideen garrantzia hizkuntzen berreskurapenerako. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 83, 129–133.
- Belmar, G. (2017). The Role of Translation in the Revitalization Process of Minority Languages: The Case of Basque. *Sustainable Multilingualism*, 10(1), 36–54.
- Beristain, A. (2007). Bai Euskarari Ziurtagiria eta Lanhitz. *HIZNET Hizkuntza Plangintza, graduondo amaierako lana*.
- Cooper, R. L. (1990). *Language Planning and Social Change* (1. arg.). Cambridge University Press.
- Cormack, M. (1998). Minority Language Media in Western Europe: Preliminary Considerations. *European Journal of Communication (London)*, 13(1), 33–52.
- Cormack, M. (2004). Developing Minority Language Media Studies. In *Mercator Media Forum* (Libk. 7, or. 3–12). University of Wales Press.
- Coyos, J.-B. (2010). Hizkuntza-ukipena. In *Soziolinguistika eskuliburua* (or. 135–182). Kultura Saila/Soziolinguistika Klusterra - Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Díaz-Noci, J. (1998). Los medios de comunicación y la normalización del euskera: Balance de dieciséis años. *Revista internacional de los estudios vascos = Eusko ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria = Revue internationale des études basques = International journal on Basque studies, RIEV*, 43(2), 441–459.
- Díaz-Noci, J. (2002). Lengua estándar, dialectos y medios de comunicación: El euskera. *Mediatika: cuadernos de medios de comunicación*, 9, 161–183.
- Dorian, N. C. (1998). Western language ideologies and small-language prospects. In L. A. Grenoble & L. J. Whaley (Arg.), *Endangered Languages* (1. arg., or. 3–21). Cambridge University Press.

- Elorza, X., Mungia, A., Jauregi, M., Barrenetxea, T., Urdangarin, J., & Abarrategi, M. (1993). Euskararen erabilera areagotzeko plangintzak enpresa-mailan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 11, 57–73.
- Etxebarria, I. (1996). Euskalkiak EITBn: Orain arteko jokabidea eta ondorioak. *EUSKERA*, 41, 547–555.
- Euskal Irrati Telebista (2016). *Jardun elebiduneko liburuxka praktikoa (JELP)*. Online: <https://images14.eitb.eus/multimedia/recursos/corporativo/EITB-JELP-JARDUN-ELEBIDUNEKO-LIBURUXKA-PRAKTIKOA.pdf>
- Euskal Irrati Telebista (2017). EITBren 2013-2016rako euskara-plana (emaitzak eta ebaluazioa). EITBren barne-dokumentazioa.
- Euskal Irrati Telebista (2020a). EITBren 2017-2020rako euskara plana, emaitzen laburpena eta eranskinak (I. Bikain ziurtagiria: EITBren 2021eko aurrexostenaren laburpena eta II. EITBren 2021-2022rako euskara planaren zirriborroa). EITBren barne-dokumentazioa.
- Euskal Irrati Telebista (2020b). *EITBrako hizkuntza funtsak*. Online eskuragarri: <https://www.eitb.eus/multimedia/corporativo/documentos/EITBrako-hizkuntza-funtsak.pdf>
- Euskal Irrati Telebista & Emun (2012ko maiatza). *EITB euskara planaren diseinua*. EITBren barne-dokumentazioa.
- Euskaltzaindia (2021, otsailak 11). Kalitatezko euskara sustatu eta zabaltzeko lau urterako hitzarmena izenpetu dute EITBk eta Euskaltzaindiak. Albistea online: <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri/6098-kalitatezko-euskara-sustatu-eta-zabaltzeko-lau-urterako-hitzarmena-izenpetu-dute-eitbk-eta-euskaltzaindiak>
- Euskararen Aholku Batzordea (2005). *Esparru sozioekonomikoan euskara biziberritu eta hizkuntza-normalizaziorako hurbilpen sistematikoagoa eta eraginkorragoa izateko irizpideak eta estrategiak*. Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila.
- Eusko Jaurlaritza (2018). *Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia: VI. Plangintzaldia (2018-2022)*. Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila - Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fishman, J. A. (1991). *Reversing language shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Multilingual Matters.

- Fishman, J. A. (Arg.). (2001). *Can threatened languages be saved? Reversing language shift, revisited: a 21st century perspective*. Multilingual Matters.
- Gardner, N. (2005). Lan-mundua: Gaurko egoera eta asmoak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 57, 31–46.
- Gutierrez, R. (2002). Bai Euskarari Ziurtagiria. El Certificado Bai Euskarari. *Noves SL. Revista de Sociolingüística*.
- Guyot, J. (2007). Minority Language Media and the Public Sphere. In M. Cormack & N. Hourigan (Arg.), *Minority Language Media: Concepts, Critiques and Case Studies* (or. 34–51). Multilingual Matters.
- Haberland, H. (1991). Reflections about minority languages in the European Community. In F. Coulmas (Arg.), *A Language Policy for the European Community* (or. 179–194). DE GRUYTER.
- Hizkuntza Politikako Sailburuordetza (2020a). *Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko plana: 2020–2023*. Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.
- Hizkuntza Politikako Sailburuordetza (2020b). *Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko plana: 2020-2023—Liburu Zuria*. Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.
- Hourigan, N. (2003). *Escaping the global village: Media, language & protest*. Lexington Books.
- Iturburu, J. (1984). Euskal Telebistako programen erabilera euskararen irakaskuntzarako. *ZUTABE*, 5, 91–93.
- Jaffe, A. (2009). Corsican on the airwaves. Media discourse in a context of minority language shift. In N. Coupland & A. Jaworski (Arg.), *Sociolinguistics: Libk. IV* (or. 265–290). Routledge.
- Kelly-Holmes, H., Moriarty, M., & Pietikäinen, S. (2009). Convergence and divergence in Basque, Irish and Sámi media language policing. *Language Policy*, 8(3), 227–242.
- Larrea, I., & Bilbao, P. (2010). Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza. In *Soziolinguistika eskuliburua* (or. 231–287). Kultura Saila/Soziolinguistika Klusterra - Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Larrinaga, A. (2008). Hizkuntza aldaerak telebistan. *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarra. Iker*, 19, 39–46.

- Larrinaga, A. (2019). *Euskararen normalizazioa: Ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra*. UEU eta EHU.
- Manterola, I. & Berasategi, N. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. UEU.
- Marko, J. I. (1993). Lan mundua eta euskara: Gainbegirada orokor bat. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 11, 13–30.
- Moriarty, M. (2007). *Minority language television as a mechanism of language policy: A comparative study of the Irish and Basque sociolinguistic contexts* [Doktore tesia, University of Limerick].
- Moriarty, M. (2009). Normalising language through television: The case of the Irish language television channel, TG4. *Journal of Multicultural Discourses*, 4(2), 137–149.
- Moring, T. (2007). Functional Completeness in Minority Language Media. In M. Cormack & N. Hourigan (Arg.), *Minority Language Media: Concepts, Critiques and Case Studies* (or. 17–33). Multilingual Matters.
- Ó Laoire, M. (2000). Language Policy and the Broadcast Media: A Response. *Current Issues In Language and Society*, 7(2), 149–154.
- Pavón, A., & Zuberogoitia, A. (2013). Multilingual Practice Of The EITB Group And Its TV Provision For Teenagers. In E. H. G. Jones & E. Uribe-Jongbloed (Arg.), *Social Media and Minority Languages* (or. 224–236). Multilingual Matters.
- Sallabank, J. (2011). Language policy for endangered languages. In J. Sallabank & P. K. Austin (Arg.), *The Cambridge Handbook of Endangered Languages* (or. 277–290). Cambridge University Press.
- Sinner, C. (2017). Language Change through Medial Communication. In K. Bedijs & C. Maaß (Arg.), *Manual of Romance Languages in the Media* (or. 381–410). DE GRUYTER.
- Skutnabb-Kangas, T., & Phillipson, R. (1989). ‘Mother Tongue’: The Theoretical and Sociopolitical Construction of a Concept. In U. Ammon (Arg.), *Status and Function of Languages and Language Varieties* (or. 450–477). DE GRUYTER.
- Torrealdai, J. M. (1985). *Euskal Telebista eta Euskara*. Elkar.
- Urdangarin, J. (1993). Euskararen egoera lan munduan: Hurbilpenerako datuak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 11, 31–45.

Aipatutako legedia

1978ko Espainiako Konstituzioa

1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua

5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeari buruzkoa

10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa

86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena

Agindua, 2008ko martxoaren 5ekoa, Kultura sailburuarena, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortzen duena, enpresen munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabileraren normalizazioaren bilakaera ebaluatzeko eta egiaztatzeko asmoz bideratua

53/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Bikain-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen dituena